



Osasuna eta Hizkuntza: Erronkak eta aukerak

13.Sep - 14.Sep 2018

Cód. 006-18

Mod.:

Presencial

Edición

2018

Tipo de actividad

Jornada profesional

Fecha

13.Sep - 14.Sep 2018

Ubicación

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Idiomas

Euskera

Validez académica

20 horas

DIRECCIÓN

Jon Zarate Sesma, OSAKIDETZA

Comité Organizador



Fundación
BBVA



Descripción

[Posterrak - Jarraibideak](#)

[Posterrak - Plantilla](#)

Osasun arloak bere berezitasun eta konplexutasunak dauzka; kanpoko eta barruko eragileen elkarlana eta sinergiak ezinbestekoak dira. Gizarte eragileez gain ikasle, irakasle eta profesionalen parte hartzea ere funtsezkoa da. Osasun arloan euskara lan-hizkuntza izateko oinarriez eztabaidatu behar da. Osasun-arreta espezializatuan euskara txertatzeko proiektuak garatu behar dira. Osasun arloko emaitzak ebaluatzeko pazienteek betetzen dituzten galdetegiak balioztatu behar dira. Nazioarteko elkarlanerako aukerak eta estandarrak etorkizuneko planetan kontuan izan behar dira. Unibertsitateak beharrezko diren prestakuntza, ikerketa eta bestelako egitasmoak diziplina anitzeko ikuspuntutik garatu behar ditu. Barne Mediku Egoiliarretan oinarritzen den mediku espezialisten prestakuntzan euskara txertatu behar da. Beste hainbat aipatu gabe utzi ditugun arren, lan ildo hauetan jarriko du begirada aurtengo ikastaroak. Eta guzti hau garatu ahal izateko, garrantzi berezia emango diogu osasungintzako profesional euskaldunen sare indartsuago bat osatzeko planteatzen diren proposamenei.

Objetivos

Osasun-arloan euskara lan-hizkuntza izateko eragiten duten faktoreak aztertu eta eraginkorrak izan daitezkeen lan-ildoen proposamenak planteatzea

Hizkuntza-gaitasun aurreratuak garatuz euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna sustatzeko proposamenak aurkeztu eta aztertzea.

Osasungintzako profesional euskaldunen sarea sortzeko estrategiak eztabaidatzea.

Programa

13-09-2018

15:15 - 15:30	Dokumentazio banaketa
15:30 - 15:45	Irekiera ekitaldia: M ^a Jesús Múgica Anduaga (Osakidetza-euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia) eta Jon Zarate Sesma (Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea)
15:45 - 16:15	“Euskara lan-hizkuntza Osakidetzan” Felix Zubia Olaskoaga Osakidetza-Donostia Unibertsitate Ospitale medikua, OEEko kide eta UPV/EHUko irakasle-ikertzailea
16:15 - 16:45	“Pazienteak Hautemandako Emaizten Neurketak eremu elebidunetan: Pazientea arretaren erdigunera” Iñaki Santamarina Renteria UPV/EHUko medikuntzako ikaslea
16:45 - 17:15	“Euskararen erabileraren aktibazioa lan munduan” Pablo Suberbiola Unanue Soziolinguistika Klusterra
17:15 - 17:30	“Euskararen erabilera eta presentzia handitzeko Osakidetza praktikako egoki batzuk” Irene Gil Legarra Donostialdea ESiko euskara teknikaria
17:30 - 17:45	“Osasunbidean pausuak emanez” Lazaro Elizalde Soto Nafarroako Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitziburua
17:45 - 18:15	Pausa
18:15 - 18:45	“Osasungintzako profesional euskaldunen sarea, Osagaiz aldizkaria eredu” Jose Ramón Furundarena Salsamendi Osakidetza-Donostia Unibertsitate Ospitale medikua eta UPV/EHUko irakasle-ikertzailea, OEE eta Osagaiz aldizkariaren zuzendaria
18:45 - 19:30	Osasungintzako profesional euskaldunen sarea osatzeko proiektuen proposamenak. Osakidetza, Osakidetza zentru kontzertatu batek, Osakidetza BAME-ek, eta OEEk. Abiapuntu izango diren zenbait ideia aurkeztuko dituzte 45 minututan (bakoitzak 5 minutu). Ondoren, 15 minutu egongo dira debaterako.
19:30 - 20:00	Posterren aurkezpenak (posterren egileei zuzenean egindako lanen inguruko galderak egiteko tarteak)

14-09-2018

09:00 - 09:30	“Osasun-arreta espezializatuan euskara txertatzeko proiektua” Bidane Petralanda Mendiola UPV/EHUko Medikuntza graduatua eta Osakidetza bekaaduna
---------------	---

09:30 - 10:00	“PROM-en garapena euskaraz Osasun Mentalean” Leire Erkoreka González Osakidetzako Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, psikiatra eta OEEko kidea Naiara Ozamiz Echevarria UPV/EHUko irakasle-ikertzailea
10:00 - 10:30	“Nazioarteko elkarlanerako aukerak eta estandarrak etorkizuneko Planei begira” Aitor Montes Lasarte Familia medikua, Aramaio, Arraseteko LMAU, Debagoieneko ESI, Osakidetza eta OEEko kidea
10:30 - 11:30	“Osakidetzako Euskararen erabilera normalizatzeko 2. Planerako neurri zuzentzaileak” Xabier Arauzo Uriarte Osakidetzako Euskara Zerbitziburua
11:30 - 12:00	Pausa
12:00 - 12:45	“"Aitzinatu" programa: Hizkuntza-gaitasun aurreratuak garatuz euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna sustatzeko programa” Joseba Andoni Ezeiza Ramos UPV/EHUko irakasle-ikertzailea eta irakasle-ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzaren arduraduna Itziar San Martin Egia UPV/EHUko irakasle-ikertzailea eta Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanordea
12:45 - 13:30	“BAME-en euskarazko formakuntza” Adrian Unai Zelaia Arieta-Araunabeña Arabako ESIko BAMEa
13:30 - 14:00	Posterren aurkezpenak (posterren egileei zuzenean egindako lanen inguruko galderak egiteko tartea)

Dirigido por:



Jon Zarate Sesma

OSAKIDETZA

Jon Zarate Sesma (Lekeitio, 1979) UPV/EHUko Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saileko kide da. Farmazia Fakultateko irakaslea da eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea. Farmazian doktorea da (UPV/EHU, 2007) eta 2016ko osasun-arloko Koldo Mitxelena euskarazko tesi onenaren zuzendaria izan da. Azken urteetan gene terapiarako garraiatzaile ez-biralen garapenean ikertzen aritu da. Goi mailako nazioarteko ikerketa aldizkarietan 20 artikulutik gora dauzka argitaratuta eta euskarazko produkzioa zientifikoa ere nazioartekoaren parekoa dauka Ekaia edo Elhuyar bezalako aldizkarietan.

Profesorado



Xabier Arauzo Uriarte

Osakidetza



Izaskun Elezgarai Gabantxo

EHU

Biologian lizentziatua da (1997) eta Zientzietan Doktorea (Neurozientziak 2002; Doktoregoko Sari Berezia) Euskal Herriko Unibertsitatean. Kontratu posdoktoralak izan zituen Magendie Neurozentruan Bordelen (2003-2005). 26 ikerkuntza-proiektutan hartu du parte, 32 nazioarteko artikuluren egile da. Osagaiz osasun-zientzia aldizkariko erredakzio batzordekidea da. 3 Doktorego Tesi, 5 Master Amaierako Lan eta Gradu Amaierako Lan bat zuzendu ditu. Ikerkuntza-lerroak: Endokannabinoide Sistema osasunean eta gaixotasunean, animalia ereduetan (alkohola, epilepsia). Graduko irakaskuntza (Medikuntza): Giza Anatomia I-IV, Ikerkuntza biomedikora sarrera, Ikerkuntza proiektua. Masterreko Irakaskuntza: Neurozientziak Unibertsitate Masterra.



Lazaro Elizalde Soto

Osasun Departamentua



Leire Erkoreka González

Osakidetzaiko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko mediku psikiatra, EHU/UPVko Neurozientziak saileko irakasle laguntzailea eta BioCruces Health Research Insituteko ikertzailea da. Nortasun nahasmenduetan aditua, grupoanalisian masterra eta transferentzian zentratutako psikoterapiako terapeuta da. Ikerkuntza lan gehiena nahasmendu psikiatrikoen genetikaren alorrean egin izan du, egun nortasun nahasmenduen genetikari buruzko doktoretza tesia egiten dabil eta tresna psikometrikoen euskaratze lanean ere dihardu.



Joseba Andoni Ezeiza Ramos



Jose Ramón Furundarena Salsamendi



Irene Gil Legarra


Osakidetza



Aitor Montes Lasarte

Osakidetza

Basaurin jaioa (1972), Euskal Herrian. Medikuntzan lizentziaduna UPV/EHUn, 1999an. Familia medikuntzako espezialitatea burutu zuen 2004an, Galdakao-Usansoloko ospitalean (Euskal Herria). Gaur egun familia medikua da Aramaion, Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuan (ESI), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. OEEko (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea) kidea. Euskal prentsan iritzi artikuluak idazten ditu noizean behin. Hizkuntza eta osasungintzarekin zerikusia duten hamar bat argitaratu ditu aldizkari zientifikoetan, batik bat Osagaiz, BAT soziolinguistika aldizkarian eta International Journal of Integrated Care aldizkarian. Eskalatzailea, zenbait bide berri zabaldtu eta argitaratu ditu prentsa espezializatuan.



Naiara Ozamiz Echevarria

Psikologian doktorea. EHUko Neurozientzia departamentuko psikiatria eremuko psikologiako irakaslea. Talde psikoterapia analitikoan masterra. Urteetan zehar psikosi eta nortasun nahasteekin talde, familia eta banakako psikoterapian lanean ibili da. Tratamendu neuroleptikoekiko jarrerei, urgentzia psikiatrikoei eta nortasun nahastei buruzko artikuluak idatzi ditu. Gaur egun pertsona nagusien inguruan eta psikologiako tresnen euskaratzean dabil ikerketan.



Bidane Petralanda Mendiola



Itziar San Martin Egia

Euskal Herriko Unibertsitatea

Itziar San Martin Egia UPV/EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko kide da. Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea da eta zentro horretako Euskara eta Eleaniztasun arloko dekanordea. Hizkuntzalaritzan doktorea da (University of Maryland, EEBB) eta azken urteetan osasun arloko hizkera espezializatuaren irakaskuntzan aritu da (Farmazia, Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapia graduetan). Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzak babesten duen Terminologia Sareak Ehunduz programaren fakultateko koordinatzailea da. Ikerketa gai nagusiak nominalizazio egituren azterketa sintaktikoa eta euskararen garapen lexiko-diskurtsiboa dira.



Iñaki Santamarina Renteria

Osakidetza



Adrian Unai Zelaia Arieta-Araunabeña



Pablo Suberbiola Unanue



Felix Zubia Olaskoaga

Zainketa Intentsiboen Zerbitzua, Donostia Unibertsitate Ospitalea, Osakidetza, Medikua

Medikuntzan Doktorea, Medikuntza Intentsiboan espezialista. Donostia Unibertsitate Ospitaleko Zainketa Intentsiboen Unitateko medikua eta Zerbitzu Burua. Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Saileko irakasle laguntzailea. Hainbat ikerketa kliniko eta argitalpen egina. Euskadi Irratiko "Osasun Etxea" irratsaioko kolaboratzaile.

Precios matrícula

MATRÍCULA	HASTA 31-05-2018	HASTA 13-09-2018
GENERAL	60,00 EUR	70,00 EUR
EXENCIÓN DE MATRÍCULA	20,00 EUR	20,00 EUR
Tarjeta soci@ ELKAR	52,50 EUR	-
Miembro de AEK	52,50 EUR	-
Alumnos UPV/EHU	-	21,00 EUR
INVITADOS OSAKIDETZA	-	0 EUR
REDUCCIÓN SALUD	-	15,00 EUR

Lugar

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Avda. Abandoibarra, 3. 48009-Bilbao

Bizkaia